

Itsas Mendi ZINEMA

#48

01.11 >
17.02.07



Neruda

Pablo Larrain

Txile/ 2016 / 1h48 / VOST

Luis Gnecco, Gael Garcia Bernal,

Mercedes Moran...

Urtarrilaren 11tik aurrera

Ez da biografia bat. Ez du haren bizitza errepasatzen. Pablo Larrainen Neruda filmak poeta entzutetsuaren bizitzako une garrantzitsu baten kontakizuna egiten du: Txileko presidenteari Alderdi Komunista traizionatu izana leporatu ondoren hasitako ihesaldia eta horren harira Peluchonneau poliziak abian jarritako jazarpen aseezina. Sentsazio hau are nabarmenago egiten du Nerudaren karakterizazioak, kartzelarlatze arriskuari garrantzia eman ordez, nahiago duelako bizitzako plazer gorenez gozatzen jarraitu. Zentzu horretan, esan liteke Larrainek poetaren alderdi ilunena azaleratzen duela: egoista, ahula eta andrezalea da; burgesa, azken finean, gizartea eraldatzeko borrokan tematu arren, ez die bere pribilegio eta luxuei uko egiten. Filmaren helburua ez da garaiko egoera politikoan sakontzea eta horrek ahalbidetzen du istorio gizatiarrago bat lantzea, pertsonetan zentratzen dena. Hala ere, gizarte borroka eta botere harremanekin loturiko mezu mamitsuak beti daude presente eta honek garaiko gizartea bakarrik ez, munduko txoko ezberdinetan logika berbera jarraitzen duten afera atemporalak mahaigaineratzeko balio du. Gidoia Nerudaren poema baten gisara haritu dute, eta honek poeta txiletarraren obran murgildu izanaren sentsazioa helarazten dio ikusleari. Gael Garcia Bernalek fintasun handiz antzezten duen Peluchonneau detektibearen offeko ahotsak sentsazio berbera areagotzen du, jazarpena bera dilema existenzial eta artistikoen esplorazio zirrargarri bilakatzeraino.

Fais de beaux rêves

Marco Bellocchio

Italia / 2016 / 2h08 / VOST

Urtarrilaren 18tik aurrera

1969ko hamaburuko 31a goizean, Turinen, 9 urteko Massimo gazteak bere aita etxeko pasabidean galdua aurkituko du. Bere inguruan hainbat pertsona urduri. Massimok bere amarengatik galde-tuko du, baina galdera honi erantzun argirik ez.

Manchester by the sea

Kenneth Lonergan

EEBB/ 2016 / 2h16 / VOST

Massachusettseko langile klaseko familia baten istoria da. Lee, lanbidez etxezaina, bere sorterritik urrun bizi da, ahalik eta urrunen. Bere bizia irauli egingo da, Joe bere anaia nagusia bihotzeko batez bat-batean hiltzean. Joek bere anaia Lee, bere iloba Patricken tutore legal izendatuko du.

Paterson

Jim Jarmusch

EEBB / 2016 / 1h58 / VOST

Paterson bere izen bera duen hiri batean bizi da, New Jerseyko estatuan. Gaztearen inspirazio iturri izango dira bertan bizi izandako hainbat idazle. Autobus gidari eta poeta minimalista, hori da Paterson. Kaiera xume batean bere lanak gordetzen dituen poeta minimalista.

Souvenir

Bavo Defurne

Belgika / 2016 / 1h30

Urtarrilaren 18tik aurrera

Liliane urdaitegi fabrika bateko langilea da. Egun batez, Lilianen lankide gazte batek beregan 1970eko bariatatearen ospe iragankorra ikusten du. Berak ukatu. Lankideak ekin eta ekin. Gizonak boxeo du amets eta bere nahia Lilianengan proiektatzen du, horrela bada eszenatokira igoaraztea izango du helburu. Kide eta maitale bilakatuko dira...

American Pastoral

Ewan McGregor

EEBB/ 2016 / 1h49 / VOST

John Romanoren gidioa Philip Rothen eleberrian oinarritua

Urtarrilaren 11tik aurrera

1960. hamarkada, Estatu Batuak. Seymour Levov, gaztetan lizeoko kirolari ospetsua, ikastetxeko neska famatuenarekin Dawnekin ezkondua, egun negozio gizona bilakatua: Bi hitzetan, arrakastaren ikurra. Beraien alaba Merryrekin, bizitza ideal bat daramatzate... dena irauliko den arte.

Baccalauréat

Cristian Mungiu

Errumania/ 2016 / 2h08 / VOST

2016ko Canneseko Festibala: Mise en scène ex-aequo Saria

50 bat urteko medikua den Roméoren nahia, bere alabari etorkizun hobe bat eskaintzea da, hots, baxoa sakelari izanki ingeles unibertsitate famatu batean onartua izatea. Bortxaketa batek baina, gaztearen etorkizuna kolokan jarriko du ...

Primaire

Hélène Angel

Frantzia / 2016 / 1h45

Sara Forestier, Vincent Elbaz, Olivia Côte, Guilaine Londez...

Urtarrilaren 25etik aurrera

Eskola arrunt bateko 5. urteko gela baten eguneroko bizia. Ikasleen aintzinean, irakasle engaiatu bat, kartsua, bizia eta irakaskuntzan sinisten duena. Bere sinismenak baina hankaz gora jarriko dira, bere ikaslea Sacha, amak abandonatua, salbatzen saiatuko denean.

L'ami, François d'Assise et ses frères Renaud Fély eta Arnaud Louvet

Frantzia / 2016 / 1h27

Urtarrilaren 11tik aurrera

1209an, Italian, François d'Assise, laguntzeko prest diren jarraitzaile eta kidez inguratuta, behartsuenen inozentzia eta purutasuna bitlatzen saiatzen da. Eliza eta Innocent III aita-sainduaren mesfidantza piztuko du.

Harmonium

Kôji Fukada

Japonia / 2016 / 1h58 / VOST

Urtarrilaren 25etik aurrera

Toshio, bere emazte Akié eta Hotaru alaba xarmentarekin hiri aldiriko herri batean bizi da. Yasakaren etorrerak, kartzelatik atera berria, familiaren bakea asaldatu du.

Premier contact

Denis Villeneuve

EEBB / 2016 / 1h56 / VOST

Erraldoia den forma beltz bat Lurraren gainean bertikalki lebitatzen ari da. Estralurtarrak dira, ez dute momentuz oldarkeririk erakutsi. Egoera larria da, herrialde batzuek espaziountziak atakatu nahi baitituzte. Armadaren aginduz, Louise Banks, linguistikari aditua, espaziountzi batean barneratuko da espezialista talde batekin.

L'ornithologue

João Pedro Rodrigues

Portugal / 2016 / 1h57 / VOST

Paul Hamy, João Pedro Rodrigues, Juliane Elting

Urtarrilaren 25etik aurrera

Fernando ornitologoa, zikoina espezie arraro baten bila ari da, honela bada, natura miresgarri batean barneratuko da. Egun batez, kanoa batean, ur-lasterrek eramanen dute. Bi txinatar gaztek salbatuko dute. Esku loturik esnatuko da, Araki argazkilaria japoniarraren modeloak lez. Fernandok hainbat metamorfosi biziko ditu: ehiztari izatetik, inor baino bitxiago diren hainbat pertsonentzat izaki miresgarri izatera...

Bienvenus !

Rune Denstad Langlo

Norvegia - Suedia / 2016 / 1h30 / VOST

Anders Baasmo Christiansen, Olivier Mukuta, Slimane Dazi...

Urtarrilaren 18tik aurrera

Primusek aurreiritzi arrazistak ditu eta hotel bat Norvegiako mendietan. Bere hotelaren etorkizuna kolokan, errefuxiatuentzako harrera etxe bilakatuko du. Horrela, gobernuaren diru laguntzak jasotzea espero du. Diru egarriz, berrogeita hamar bat errefuxiatu aterpetzen saiatuko da. Bizi baldintza eskasak direla eta, baina, erreboltak eztanda egingo du. Primusentzat dena okerrera doa, egoera horri gainera, emazte deprimitu bat eta nerabe asaldatu bat gehitzen bazaizkio...

Live by night

Ben Affleck

EEBB / 2016 / 2h08 / VOST

Ben Affleck, Zoe Saldana, Elle Fanning...

Otsailaren 1etik aurrera

Joe Coughlin, Lehen Mundu Gerlako beteranoa, kriminal bilakatuko da debekuen Ameriketara. Emma Gould pozoitsuaren xarman erori eta irlandar eta italiar mafien arteko gerlan sartuko da. Hainbat banku lapurtu ostean eta hilketa bat gauzatzeaz akusatutik, Joek kartzelan bukatuko du, bere aitaren etsipenerako, Thomas, balore handiko polizia. Askatasuna lortzean, Joek Masco Pascatoreren proposamena besterik ez du, Floridara doa beraz, alkool kontrabandua egitera. Bertan, Graciella Suarezekin maitemindu eta kasino bat idekitzea nahiko du...

Ouvert la nuit

Edouard Baer

Frantzia / 2016 / 1h40

Otsailaren 1etik aurrera









Bi hilabete dira Luigiren antzerkiko langileak haien paga itxoitzen dutela. Greba egitea erabakitzen dute. Bi hilabete dira Luigik, bere agerraldirako, tximino bat bilatzen duela. Larunbat gau batez, Luigi eta zebitzari gisa lan egiten duen Faeza gaztea, tximinoaren bila abiatuko dira.

Urtarrilaren 11tik 17ra	az 11	og 12	or 13	lr 14	ig 15	al 16	at 17
L'ami (AD)	14h00			17h20		21h00	
American Pastoral	19h10		21h00	19h00	14h	17h00	
Neruda	17h20/21h	21h00	15h00	21h00	18h30	15h/19h	17h30
Your name.	15h30 (VF)		19h10 (VO)		11h00 (VF)		
Paterson		18h45			20h30		15h30
Manchester by the sea		14h45			16h00		
Beyond Flamenco		17h15		14h00			19h30
Premier contact							21h00
Baccalaureat			17h00				
Vaiana				11h			
Ballerina				15h45			

Urtarrilaren 18tik 24ra	az 18	og 19	os 20	lr 21	ig 22	al 23	at 24
Bienvenus !		17h30	14h15		20h30	21h00	
Souvenir (AD)	21h00		16h00		14h30	17h50	
Fais de beaux rêves	18h45	21h00		20h30	16h15		14h15
Neruda		19h05	21h00	16h00	18h30	14h00	
American Pastoral			19h10			16h00	
L'ami (AD)			17h40			19h30	
Your name.	14h45 (VF)			11h (VO)			
Paterson		15h30					20h30
Manchester by the sea				18h00			16h30
Beyond Flamenco		14h00					19h00
Premier contact				14h00			
Ballerina					11h00		

Urtarrilaren 25etik 31ra	az 25	og 26	or 27	lr 28	ig 29	al 30	ar 31
Harmonium	21h00				14h15	17h30	
L'ornithologue			17h30			21h00	
Primaire (AD)	19h15	21h00	14h00	20h30	16h15		
Loving (Kideentzako aurreestreinua)			21h00				
Fais de beaux rêves		17h00			18h15		
Souvenir (AD)			15h50			19h30	P
Bienvenus !		19h20				14h00	A
Neruda	17h20				20h30	15h40	U
L'ami (AD)				11h			S
American Pastoral	14h00			14h			A
Paterson		15h					
Manchester by the sea				18h00			
Your name.				16h (VF)			
Le géant de fer	15h50				11h00		

Aurrerantzean filma bakoitzaren azken emanaldiak kolorez atsemanen dituzue ordutegietan, ez ahanzteko !

Otsailaren 1etik 7ra	az 1	og 2	or 3	lr 4	ig 5	al 6	at 7
Live by night	21h00	17h00		18h15			15h50
Ouvert la nuit	17h15	21h00 	18h30	15h50		19h00	
Corniche Kennedy				20h30			18h00
Des lois et des hommes			20h30				
Festival Droits de l'Homme					P		20h00
Harmonium		15h00 			A	20h45 	
L'ornithologue					U	17h00	
Primaire (AD)		19h10 		14h00	S	15h00 	
Fais de beaux rêves	14h15		14h15 		A		
Neruda	19h00		16h30				14h 
A deux, c'est mieux	16h30 			17h30			
Le géant de fer				11h00 			


Aurrerantzean filma bakoitzaren azken emanaldiak kolorez atsemanen dituzue ordutegietan, ez ahanzteko!

ORDUTEGIA


Filmak programazioan azaldutako orduan hasten dira.


(BB) Guztieri idekitako emanaldiak, gurasoak alta, pausa garaian, beraien haur ttikiakin etortzen ahalko dira. Soinua horretarako egokitzen dugu.

 Entzumen urrikoentzat azpitoludun emanaldiak

 Salda Badago : **etxean eginiko salda barazki baten truke!**

(AD) Ikusmen urrikoentzat filmak audiodeskripzioan.

 Eguneko lehen emanaldia 3,50€tan da denentzat.

 **Zine-te** : Zinema baino gehiago! Etxeko pastiza baten inguruan filmari buruzko iritziak ondokoekin partekatu edo soilik gozatu

PREZIOAK

Prezio osoa 5,5€

Prezio murriztua 3,5€

18urtetik beherakoak
langabetuak
ikasleak

Talde prezioa 3€

15 pertsonatik gora

Abonamenduak 43€

Izenik eta denbora mugarik gabeko 10 leku

38€ (kidei

erreserbatua)

Denbora mugarik gabeko 10 leku, baina izendatuak

Kidetzat 30€

Txartel izendunaren
baliagarritasuna 1/01-31/12

Elkartearen
Biltzar Nagusia

URTARRILAREN
27an 19.30etan

Ostegunetan, ravioli !

Ostegunero, elkarteko kideek zuentzako afari goxo bat prestatzen dute, 21.00etako filmaren nazionalitatean edota gaien inspiratuz.

Harrera 19.30etatik aurrera.

Menua : 9€ kideentzat, 12€ haiekin heldu direnentzat.

Erreserbak egiteko: 05 59 24 37 45.

Loving

Jeff Nichols

EEBB / 2016 / 2h03 / VOST

Joel Edgerton, Ruth Negga,

Marton Csokas...

Elkarteko kideak...

Urtarrilaren 27an 19etan

Itsas Mendi elkartearen

lehen Biltzar Nagusia

egingo da.

Zuen engaiamendua

eskertzeko, Loving filma

ederraren aurre estreinua

oparitzen dizuegu.

Mildred beltza da, Richard xuria. Elkar maite dute eta haurrak izan nahi dituzte. Baina 1958an, beraien Virginia sorlekuan, bikote mistoak ilegalak dira. Delitu horregatik kartzela dute zigor. Egiazko istoria: gaizkileak lez segituak, beste estatu batean erbesteratzera behartuak, Loving gizon emazteak giza eskubideen aldeko borrokaren ikur bilakatu dira, Amerika segregario horretan. Gehienetan, horrelako gaiak sentsaziozko filma pisutsuak ekiditen ditu, finezia handiarekin. Detaile txikietan oinarritzen da, hortan da filmaren handitasuna: maitasun baten detaile intimo eta unkiagarriak munduaren krudeltasunaren, biolentziaren eta mediatizazioaren kontra. Ez militantek, ezta bandera eramaleak ere. Filma lez, Loving-ak diskretuak eta inor baino bihozberagoak dira. *Télérama*

Aurre-estreinua urtarrilaren 27an Itsas Mendi elkarteko kideentzat

Elkarteko kideentzat sarrera urririk.

Corniche Kennedy

Dominique Cabrera

Frantzia / 2016 / 1h34

Lola Creton, Aïssa Maïga, Moussa Maaskri, Kamel Kadri...

Maylis De Kerangal-ren eleberrian oinarritua.

Otsailaren 1etik aurrera

Marseilan, Kennedy erlaitzaren gainean, nerabeak beraien joko gustokoenean ari dira: itsasora jauzi egitea. Gazte hauentzat, benetako iragate erritual bat izateaz gain, beharrezkoa duten adrenalina dosia atxematen dute bertan. Bere aldetik, Suzanne, familia on bateko alaba, itotzear da bere hiri dotorean eta sentsazio berak bizi nahi ditu. Gazte taldean sartzea lortzen du, bere amaren etsipenerako. Awa poliziak, bere largabistekin, maiz begiztatzen du taldea, Marco, Mehdi, Franck, Mélissa, Hamza, Mama eta Julie. Dena hankaz gora jarriko da droga trafikiko istorio batekin...

Dominique Cabrera
errealizatzailearekin

otsailaren 4an 20.30etan

Des lois et des hommes

Loïc Jourdain

Frantzia - Irlanda / 2016 / 1h46

Otsailaren 3an 20.30etan

John O'Brien, Irlandako Bo Finne irla txikian bizi den arrantzale bat da. Borroka luze bati ekin dio. Bere arbasoen arrantzarako eskubidea aldarrikatzeko Europa mailako kanpaina batean murgildu da, uharteko talde batekin eta GKE (ONG) bateko nazioarteko adituekin. Nola neurtu, aldez aurretik baina, bere borrokaren ondorioak? 8 urtez filmatua, filma honek gizonaren eguneroko bataila kontatzen du, Bruselan erabakitzen den arrantza erreforma berria ulertze aldera, dena lapurtu dion sistema ulertze eta aldatze aldera. Gizon baten, komunitate baten, herrialde baten eta Europa osoaren istorioa kontatzen du.

Filmaren ostean Anne-Marie Vergezenkin eta Eskuzko Arrantza Txikiaren Plataformako kideekin eztabaida.

Beyond Flamenco

Carlos Saura

Espainia - Argentina / 2016 / 1h27 / VOST

Sara Baras, Ara Malikian, Giovanni Sollima...

Flamenco, Flamenco eta Argentina-ren ostean, Carlos Saurak Jotaren inguruko bidaia musikal berri bat proposatzen du, bere herrialdeko, Aragoiko, dantza eta musika tradizionala. Bere estiloan, zinemagile espainol famatuak Jotaren dimentsio artistiko guztiak balentriaz aztertzen ditu eta beronen bizitasun eta karisma azaleratzen ditu, Sara Baras, Carlos Núñez edota Ara Malikian bezalako dantzari eta musikari famatuen parte hartzearekin. Oraingoan ere, magiarik ez da falta.

Festival International du Film des Droits de l'Homme

Otsailaren 7an 20h

Bi filmen ostean, Bestearekin (etorkinei laguntza eskeintzen dien elkarte) topaketa

Persising dreams

Côme Ledésert

Frantzia/ 2015 / 25'

Toni Lampedusako arrantzale bat da. Beste kontinente batetik heldu diren gizon, emakume eta haurrak gurutzatzen ditu. Nor dira itsasotik heldu diren etorkin horiek? Zergatik heldu dira Europako ateetan dagoen irla hontara, bidean lehenago hil ezean? Toniren lekukotasunak gure aurreiritzi eta beldurrak galdezkatzen ditu, Toniren errealitatea eta etorkinen ametsak azaleratzearekin bat.

Imagining Emanuel

Thomas Østbye

Norvegia / 2015 / 52'

Emanuelen bizia hari mehe bateatik zintzilik da. Norvegian egonaldi baimenik ez duen bezala, ezinezkoa du Europa utzi eta Afrikara itzul-tzea. *Imagining Emanuel*-ek identitatearen nozioarekiko galderak mahain gainean pausatzen ditu. Zerk egiten du pertsona bat, zerk/egiten du norbanakoa?

ZINE TTIKI

Vaiana

Ron Clements & John Musker

EEBB / 2016 / 1h53. 5 urtetatik aurrera

Vaiana neska gazte ausartak, ez du ulertzen nola bere jendeak alde batera utzi duen beste herrialde batzuen konkista egarria. Itsasoratzea erabakitzen du, Maui gurutzatuko du, erdi jainko espantu bat. Vaianak elementu likidoa kontrolatzeko boterea duela deskubrituko du, hala ozeanoa bere laguna du. Bikoteak bidaia epiko bati ekingo dio...

Ballerina

Eric Summer & Eric Warin

Frantzia / 2016 / 1h32.

5 urtetatik aurrera

Txiki-txikia denetik, Féliciek dantzarekin eta Pariseko Operan sartzearekin amets egiten du. Victorrek, bere lagun hobereana eta umezurtza bera bezala, asmatzaile famatu izan nahi du. Heien ametsak burutzeko, Britainian kokatua dagoen umezurtz etxetik elkarrekin ihes egitea erabakitzen dute. Lumière hirirantz abiatuko dira. Bertan laster konturatuko dira, baina, gogor lan egin beharko dutela.

Le géant de fer

Brad Bird

EEBB / 1999 / 1h25 / VF.

5 urtetatik aurrera

Rockwellen, Maineko herrixka batean, 1957ko urrian. Bakarrik, Hogarth Hughes gazteak denbora gehiena pantailaren aurrean pasatzen du. Bere emankizun gogokoena begiratzen ari dela, irudia nahasi egingo da. Antena kendua izan dela konturatuko da. Errudunaren xeka, zentral elektrikoa xahutzeko prest dagoen metalezko izaki erraldoi bat atxemango du basoan. Harietan nahasirik, monstroa arriskuan da. Hogarthe argindarra moztuko du eta erraldoia salbatu. Hor sortuko da haien arteko laguntasuna... Zine-krakada & Robots en folie atelierra urtarrilaren 25ean, asteazkenean 15.50etan !

Your name.

Makoto Shinkai

Japonia / 2016 / 1h48 / VF & VOST

Urtarrilaren 11tik aurrera

Familia tradizional batean hezia da Mitsuha. Bere sorterriko mendietan asko aspertzen da eta hiri bateko bizi kilikagarria ezagutzea du amets. Tokyon, Taki lanpetua dago, lizeoaren, ostatu zerbitzari lanaren eta bere lagunaren artean. Egun batez, Mitsuhak Tokyoko mutil gazte bat dela amesten du, eta Takik ametsetan baserrialdeko neska gazte bat lez ikusten du bere burua. Uste gabe ametsak errealitate bilakatzen dira: beraien gorputzak elkar trukatu dituzte. Hasieran loriaturik, baina laster ohartuko dira haien nahia aurrera eramatea pizuegi dela. Elkar topo egin nahi dute gauzak berriz normaltasun batera itzul daitezen...

A deux, c'est mieux

Animaziozko 7 filma labur

Alemania/Herbehereak/Errusia / 2016 / 40'. 2 urtetatik aurrera

Dударик ez: binaka, askoz hobe! Jolasak, poztasunak, penak, esperientziak... partekatzeke. Laguntasuna ardatz, ikusle gazteenentzat proposaturiko zazpi filma polit eta goxo. Zine-krakada & atelierra otsailaren 1ean, asteazkena, 16.30etan